

SASOETA LOIDIBARREN

AUZOS AUZO, PAUSOS PAUSO

DATA: Martxoak 27

ORDUA: 19:00-20:30

PERTSONA KOPURUA: 24 (19 emakume/ 5 gizonezko).

Bilera hasteko, auzoz auzoko lehengo bileren balorazio txiki bat egin da, etorri direnei bertan egindakoa gogorarazteko eta hurbildu den jende berria kokatzeko.

Lehenengo bilerak bukatutakoan, parte-hartzeko departamentuak egiten duen balorazioa oso positiboa da. Kontuan izanik planteatu den dinamika berria dela, auzotarren erantzuna egokia eta parte-hartzailea izan dela uste da.

Asistentzia aldetik, 15-50 pertsona agertu dira bileretara. Kopuruak auzoaren arabera ezberdinak izan dira; guztira, 184 pertsonak parte hartu dute.

Guztira, 278 gabezia, kezka eta proposamen jaso dira. Auzoetan, gabezia komun batzuk atera dira; esate baterako: txakur-kaken arazoa, garbiketa, komertzio txikiaren sustapena...

Zehazki, auzoko datuak honako hauek dira:

- 19 pertsona hurbildu ziren bilerara.
- 13 emakumezko eta 6 gizonezko.
- 36 proposamen jaso ziren.

BILERAREN HELBURUAK:

Lehenengo bilera gabeziak, kezkak eta proposamenak jasotzeko izan bazen, bigarren bilera hau ideia horiei lehentasuna emateko izan da. Udalak horren arabera lanean hasteko asmoa du. Bigarren bileretara joatearen garrantzia da bertan lehentasunak ezarriko direla.

Lehenengo bilerako gabeziak, kezkak eta proposamenak 3 multzotan sailkatu dira:

Berdea: Udalak kompetentzia osoa du, eta horiei epe motzean (urtea amaitu arte) erantzun bat ematera konprometitzen da. Erantzuna ez da zertan exekuzioan bakarrik ulertu behar. Batzuk aurrekontu eta lanketa gutxiko gaiak dira, berehala egitekoak. Beste batzuk, ez hain berehalakoak. Horien artean, auzolanean egitekoak aurkituko ditugu.

Laranja: Udalak kompetentzia osoa du. Baina, proiektuaren tamainagatik, ezin du berehala erantzun. Laranja sailkatutako gaiak landuko dira, eta haien artean lehentasunak ezarriko dira. Aurrekontu bat eskatzen du, eta lanketa sakona. Lanketak herritarrekin HPHLak sortuz egin daitezke, eta prozesuaren 3. fasean aurkeztuko lirateke. Bertan, udalak diru-partida finko bat erreserbatu beharko luke, eta auzotarrek erabaki beharko lukete zein proiektu egingo diren. Horrela, datorren urteko aurrekontuan sartuko lirateke eta datorren urtean gauzatuko.

Gorria: Udalak ez du kompetentzia osoa, ezin du erabakia gauzatu. Beste instituzio edo elkarte batzuei dagokie gaia, guztiz edo partzialki. Hala ere, gorriz sailkatuta dauden gaiak landuko dira, eta haien artean lehentasunak ezarriko dira. Horrela, udala dagokionari zuzenduko zaio, eskaera ofizial bat eginez proiektua bultzatzeko.

SASOETA LOIDIBARREN

BILERAREN DINAMIKA:

Dinamikarekin hasi aurretik, auzotarrei aipatu zaie, aurreko bileran ateratako kezka, gabezia edo proposamenen bat falta bada, esateko eta apuntatu egingo dela.

Gabezien multzokatzea (berdea, laranja eta gorria) paretan jarri da, ondoren puntuazioa bertan idazteko.

Bileraren dinamika lehenengo bileraren dinamikaren antzekoa izan da. Auzotar bakoitzak minutu pare bat izan ditu, bakarka, kezkei, gabeziei eta proposamenei lehentasunak ezartzeko. Auzotar bakoitzak multzokatze bakoitzari (berdea, laranja eta gorria) garrantziaren arabera 1, 2 edo 3 puntu (3 puntuaketa altuena eta 1 baxuena) emateko aukera izan du.

Bakarrik dauden bitartean, forma ezberdinetako gozokiak banatu dira. Talde txikiak egiteko erabili da hori.

Talde txikietan (4-5 pertsona), bakoitzak jarri dituen lehentasunak komentatzeko aukera izan dute. Taldean bozeramaile bat izendatu da, eta pertsona hori izan da taldeak gabezia bakoitzari emandako puntuazioa ozenki adierazi duena.

Bien bitartean, udaleko kideak taldez talde ibili dira, laguntza eskaintzeko, behar izanez gero.

Talde handian jartzean, talde bakoitzeko bozeramailea gabezia bakoitzari jarritako puntuazioa esaten joan da. Talde guztiek denak aipatu arte. Ondoren, puntuazio handiena atera dutenetik txikiena atera dutenera ordenatu ditugu, lehentasuna argi ikusteko.

Bukatzeko, auzotarrek gabezia bakoitzaren inguruan proposamenen bat baldin badute, jaso egin da.

Arlo bakoitzeko, kartulina bat jarri da, ateratzen diren ideiak apuntatuz joateko.

Itxiera:

- Gai zehatzen inguruan bilerak egiten direnean deialdi zuzena egingo zaiela.

Bilerara etortzeagatik eskerrak ematea.

SASOETA LOIDIBARREN

Udalak konpetentzia osoa du eta epe motzean erantzuna.

Es competencia del ayuntamiento y responderá en breve.

	GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes	PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones.
25	<ul style="list-style-type: none"> Txakur kakak Problemática de los excrementos de los perros. 	<ul style="list-style-type: none"> Isunak edo adn frogak egin. Multas o pruebas de ADN.
19	<ul style="list-style-type: none"> Igogailuarengatik zoriondu baina jendeak sua, zikindu... egiten du bertan. Felicitar por el ascensor pero la gente lo ha quemado, ensuciado... 	
17	<ul style="list-style-type: none"> Baxuetako garbiketa eta terrazak(Adarra 9 inguruak) Limpieza de los bajos y las terrazas(alrededores de Adarra 9) 	
11	<ul style="list-style-type: none"> Bineta garestia da dauden aparkamendu kopururako. La viñeta es muy cara para los aparcamientos que hay. 	
11	<ul style="list-style-type: none"> Garbiketako makina baxuetatik berriro pasatzen hastea. La máquina de la limpieza que pase otra vez por los bajos. 	
9	<ul style="list-style-type: none"> Zebrabideko marrak ez daude margotuta. Las rayas de los pasos de cebra casi no se ven 	
7	<ul style="list-style-type: none"> Errespetua eta erresponsabilitatea sustatzeko kanpainak egin. Hacer campañas para fomentar el respeto y la responsabilidad 	
5	<ul style="list-style-type: none"> Baxuetan etxeak dituzten jendeak kalea beraiena balitz bezala erabiltzen dute. Horrela erabili dezakete? (San marcial 6). La gente que tiene las casas en los bajos utiliza la calle como si fuera suya. Pueden hacerlo? (San Marcial 6). 	
5	<ul style="list-style-type: none"> Lorzainek ez dituzte lorategiak behar bezala zaintzen. Los jardineros no cuidan bien los jardines. 	
3	<ul style="list-style-type: none"> Auzoz auzoko inizatibarekin jarraitzea. Seguir con la iniciativa del barrio a barrio. 	

SASOETA LOIDIBARREN

3	<ul style="list-style-type: none"> • Kaleen garbiketa exkaxa. • Escasa limpieza de las calles. 	
2	<ul style="list-style-type: none"> • Hirigintzan udalak zer politika jarraituko duen. (etxeak eraikitzeko garaian...) • ¿Que política va a seguir el ayuntamiento en urbanismo? (al construir casas...) 	
2	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal folklore taldeei lagundu. • Ayudar a los grupos de folclore Vasco 	
1	<ul style="list-style-type: none"> • Zaborra noiz jasotzen dute? • ¿cuando de recoge la basura? 	
1	<ul style="list-style-type: none"> • Zebrabideetan aparkatzen dute kotxeek. • Los coches aparcen en los pasos de cebra. 	
1	<ul style="list-style-type: none"> • Ahal den guztia egitea euskara sustatzeko. • Hacer todo lo posible para fomentar el euskera... 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Herriko kirol elkarteei laguntzak eman. • Dar ayudas a las asociaciones de deportes. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Iturri gehiago. • Más fuentes. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • BM-ko aldapa 10km/h igo behar dela jartzen du baina ezinezkoa da abiadura horretan igotzea. • En la cuesta del BM pone que hay que ir a 10km/h y es imposible subir a esa velocidad 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Boluntarioak Atsobakarrerako. • Voluntarios para Atsobakar. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Sujerentziak egiteko telefono bat. Denuntziak anonimoak. • Un teléfono para recoger las sugerencias. Denuncias anónimas 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Web-orriko sujerentzien pdf ondo dagoen begiratu. • Mirar si el pdf de la pagina Web del ayuntamiento esta bien. 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Zergatik batzuk badoa ordaintzen dute eta beste batzuk ez? • ¿Porque algunos pagan el vado y otros no? 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Konponbide bat eman useoi janaria emateari. 	

SASOETA LOIDIBARREN

	<ul style="list-style-type: none">• Dar solución a que den de comer a las palomas.	
	<ul style="list-style-type: none">• Gaztelekuaren kanpo aldeko garbiketa zaindu.• Cuidar la limpieza de zona de fuera del Gazteleku.	
	<ul style="list-style-type: none">• Gaztelkutik eserleku gehiago jarri.• Poner más bancos por el Gazteleku.	
	<ul style="list-style-type: none">• Aralar plazako zuhaitzak kimatu.• Podar los árboles de la Plaza Aralar.	

SASOETA LOIDIBARREN

Udalak konpetentzia osoa du baina proiektuaren tamainagatik ezin du berehala erantzun.

Es competencia del ayuntamiento pero por el tamaño del proyecto no puede responder enseguida.

	GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes	PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones.
42	<ul style="list-style-type: none"> Noiz botako dira baxuak (horrela esanda zegoen). ¿Cuando se van a echar los bajos? (se dijo que se echarían). 	
33	<ul style="list-style-type: none"> Udaltzaingoaren presentzia handiagoa. Mayor presencia de los municipales. 	
19	<ul style="list-style-type: none"> Aparkamendu falta. Faltan aparcamientos. 	
9	<ul style="list-style-type: none"> Boteloia egin ondoren Udaberri elkartearen inguruak eta N-1 ondoan dagoen pasealekuak nazka ematen du. En los bajos de la sociedad de Udaberri y en el paseo (al lado de la N-1) hacen botellón y lo dejan muy sucio. 	
6	<ul style="list-style-type: none"> Gazteei laguntzak eman. Dar ayudas a los jóvenes (en desempleo). 	
6	<ul style="list-style-type: none"> Somoto partean argiztapen gehiago. Más iluminación en el parque Somoto. 	
5	<ul style="list-style-type: none"> Donostia etorbidearen errepidearen egoera txarra da. El mal estado de "Donosti etorbidea". 	
3	<ul style="list-style-type: none"> Komertzio txikiari laguntzak eman. Dar ayudas al pequeño comercio. 	<ul style="list-style-type: none"> Auzoko tabernei aparkalekuak kentzeak eragin handia izan du. Les ha perjudicado el quitar aparcamientos
2	<ul style="list-style-type: none"> Igandetan lotsagarria da basuren ontziak nola egoten diren. Los domingos los contenedores suelen estar muy llenos. 	
	<ul style="list-style-type: none"> Andatza plazako tabernen ondorioz zarata handia egoten da. Tabernak itxi arren, bezeroak petrilean geratzen dira zarata handia 	

SASOETA LOIDIBARREN

	<p>sortuz.</p> <ul style="list-style-type: none">• Los bares de Andatza plaza produce mucho ruido. Aunque cierren los bares, los clientes se quedan fuera montando escándalo.	
	<ul style="list-style-type: none">• San Pedroaetan ekintza gehiago egin auzoan.• Hacer mas cosas en el barrio en San Pedros.	

SASOETA LOIDIBARREN

Udalak ez du konpetentzia osoa
No es sólo competencia del ayuntamiento.

	GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK/ carencias, dudas, puntos fuertes	PROPOSAMENAK/ propuestas KONPONBIDEAK/ soluciones.
48	<ul style="list-style-type: none"> • Lan komunitarioak egin behar dituzten pertsonak (kaleak garbitzen, txakur kakak jasotzen izatea). • Las personas que tengan que hacer trabajos comunitarios sea: limpiando calles, recogiendo excrementos 	
38	<ul style="list-style-type: none"> • Euskotreneko zebrabideetan badenak igo autoek abiadura gutxitu behar izateko.. • Los pasos de cebra que hay en la rotonda de Euskotren subir los badenes. 	<ul style="list-style-type: none"> • Semaforoak kendu peatoiek preferentzi oso izateko. • Quitar los semáforos para que los peatones tengan la preferencia.
35	<ul style="list-style-type: none"> • Txintxarri bezalako zerbait baina elebiduna. • Algo como el Txintxarri pero en bilingüe. 	
14	<ul style="list-style-type: none"> • Herriko elkarte eta taldeen artean harremanak sustatu. • Fomentar las relaciones entre los grupos y asociaciones del municipio.. 	